

CARLOS GARAIKOETXEARI

CARLOS GARAIKOETXEA JAUN,
EUSKO KONTSEILU NAGUSIAREN
BURU EDO LEHENDAKARI HORRI:

Bilbo, 1979-IX-26

Fr. Luis Villasante

Arantzazun, eta Arantzazuko Amaren egunean, hain zuzen, agurtu zindudanean, agertu nizun zein zen gure gogoa: zurekin egoteko gogoa, alegia. Eta zuk gogo bera eta asmo bera zenuela esan zenidan.

Gaurko ikustaldiak ez du beste xederik gogo hori betetzea baizik.

Arrazoi bat baino gehiago zegoen, noski, ikustaldi hau guk zuri egiteko.

Lehena, Eusko Kontseilu Nagusiaren Buru zaren aldetik, geure aitorra eta agurra egin nahi dizugula.

Badirudi autonomiarekin egoera berri eta egunsenti berri baten atarian dela Euskal-Herriaren zati hau, sartaldeko zatia esan nahi dut. Euskararentzat aukera berriak, orai arte ez bezalakoak, izango direla. Eta Euskaltzaindiak, berari dagokion aldetik, bere emaitza eskeini nahi dizu. Eusko Kontseiluko Buru horri esan nahi dizu, alegia, bera prest dagoela azalduko den lan gaitza burutzen laguntzeko, beti gure Elkargoaren xede eta egitekoen barnean eta gure ahalmenen neurrian.

Beste arrazoi bat ere bada ikustaldi hau zurekin eduki nahi izateko, hots, elkarren berri jakin dezagun. Elkarren berri izanez, informazio faltaz —edo txarrago dena, informazio okerraz edo saihetsekoaz— sort daitezkeen oker-adituak zuzen eta argi ditzagun.

Eta uste dut badela horren beharra.

Frankismoaren garaian, gauza asko, ziren bezala, esaterik ez zegoelako, elkarrenganako susmoak, errezeloak eta uste okerrak errazki sortu eta ugaritzen ziren.

Egoera hura pasatu da. Baina orai ere alderdikeria, setakeria, inor beztutzea eta laidoztatzea, dogmatismoa eta besteen jokabidea norberaren dogmatismotik epaitu eta gaitzestea: hori ez da, ez, gainditu, egunoro ikusten ari garen bezala.

Horregatik, hain zuzen, behar dugu elkarren berri jakin.

Akademiak nahi du, bere nortasuna eta autonomia aitortuz, utz dakiola lan egiten, zeren horrela eta orduan, eta orduan eta horrela bakarrik egin baitezake lan jatorra, emankorra eta benetan onuragarria euskararen alde. Baina besteek epaitu behar baldin badute zer egiten duen ongi eta zer gaitzki —haren lana beren ikusmoldeetarik

epaituz— orduan akabo, orduan gureak egin du. Etxean gelditzea hobe. Egin dezatela berek lana, eta kito.

* * *

Duela egun guti entzuten nion jaun argi bati nolako lan gaitza datorkion gure herriari egoera berri honetan. Autonomia lortzea gauza handia eta desiragarria izanik ere, horrekin ez dago dena egina. Autonomia —zion jaun harek— lauki baten lau oholak bezala dira, baina barrunbea hutsik dago eta edukinez bete behar da. Zulo eta huts ikaragarriak ditu gure herriak, eta horiek ez dira goizetik gauera beteko. Eta bide txarra izango litzateke —zion jaun hark— hutsune horiek betetzeko alderdi politikoetara jotzea, epaia horien eskuetan uztea.

Beste alor askotan ere eskas eta onbehar gara, baina aipa dezadan gu hurbilengatik ukitzen gaituen alorra: euskal kulturaren alorra. Edonork daki gure herriak gaur arte ez dituela izan bide eta aukerak euskal kulturaren alor hau behar bezala lantzeko eta bere heldutasunera eramateko. Zerbait egin da, baina egiteko dagoena askozaz ere ghiago da.

Eta okerreko bidea hartuko genuke euskal kulturaren gidaritzan alderdien eskutan utziko bagenu edo haien irizpideak kulturaren dogmatzat ezarriko bagenu. Edo zinezko euskal kulturarik ez da sekula egonen —behintzat izen hori merezi duen kulturarik— edo kultura horrek autonomia bat beharko du bere zeregina libreki aurrera eraman dezan. Dauden instituzioei lan egiten utzi, lagundu, baina ez inolaz ere aurre iritziak inposatu. Hori uste dut dela bidea.

Barnean istiluak eta auziak ditugula? Bai, eta non ez daude? Horiek konpontzeko, ordea, hor dugu geure Arautegia eta hor ditugu geure ibilpide legeak. Gauza bat da onartu ezina: kanpoko inposaketa.

Kritika behar dela? Bai, noski. Baina behar den mailan. Euskaltzaindiak, adibidez, ez du uste Institutio bezala bere zeregina denik Eusko Kontseilu edo Diputazioei gobernu kritika bat egitea.

Barka, jauna, Frantziskano bati dagokion basati itxurako idekitasunaz gure kezak azaltzen badizkitzut. Kultura ez dadila izan alderdien morroi. Aitzitik, bera izan dadila gure herrian aginpidea duena eta euskal etxeari benetazko oinarri sendoak jarriko dizkiona. Orduan joango dira gauzak ongi, eta ez bestela. Eta horretarako autonomiaren beharra du kulturak gure herrian.

Hau beharbada pixka bat idor eta zurrin atera zait, baina uste dut gozatuko direla gauzak guztiok anaitasunean mintza gaitenez, eta erraz iritxiko gara, nik uste, puntu nagusietan iritzi bateko izatera. Hau da behintzat gure gogoia.

* * *

Alderdiei buruz zein den Euskaltzaindiaren jarrera garbi dago. Berez, Euskaltzaindi denez, ez dago ezin alderdiri lotua; beste maila bateko sorkaria da, kultur mailakoa, eta kultura eta alderdi politikoak ez daude lerro berean. Horrek ez du esan nahi euskaltzainak partikulariki politika edo alderdi batekoak edo bestekoak izan ez daitezkeela, baina Euskaltzaindia bera politikatik ate gelditzen da. Uste dut hau izan zela Euskaltzaindiaren jarrera gerra aurreko garaian ere, eta orai jarrera berbera du.

Ez du bere burua bat egiten alderdi honekin edo horrekin, baina horrek ez du esan nahi kontra dagoenik ere. Bera bere mailan irauten saiatzen da. Euskaltzainak,

aldiz, pertsonalki alderdi batekoak edo bestekoak izan ziren lehen ere eta orai ere izan daitezke.

Euskaltzaindiak bereizkeriarik gabe hartzen ditu bere lankideak. Euskara maite duena, lantzen edo aztertzen duena, eta alor honetan merezimenduak dituen, beste gabe, gai da Euskaltzaindiko izateko, gainerakoan, politika arazoetan joera batekoa edo bestekoa bada ere. Euskarak biltzen gaitu eta bat egiten gaitu. Eta hala jokatzean uste dut zerbitzurik ederrena egiten diogula geure herriari, zeren euskara guztiona baita, herri baten altxorra, alegia.

Euskaltzaindia ofizialki eta publikoki Euskal-Herriko lau Diputazioek sortua da euskarari buruzko arazoetan eta bereziki euskara batuaren arazoan gidaritza hartzeko. Herriko ordezkarien eskutik hartutako mandatuaren arabera lanean ari da eten-gabe, eta aritu da urterik txarrenetan ere. Denen gustora ez dituela gauzak egiten? Eta nork egiten ditu? Baina bere ahaleginen eta argien neurrian saiatzen da euskararen problemei atarramendu on bat ematen.

Halaz guztiz, aitortu behar dut nolobait Euskaltzaindiaren babespean dabilzan talde batzuek, inoiz, guk agindutakoaren kontra, hautsi dutela erregla hau eta aukera politiko jakin batzuen alde jarri direla. Jokabide hau, ordea, guk ez dugu onartzen eta makur horiek zuzentzeko asmoa dugu.

* * *

Euskara gaur eguneko arazoak adierazteko tresna egoki eta trebe bihurtzea: horra gure helburua. Askotan uste den baino lan korapilotsuagoa da hau. Bada hemen problematika bat aitzingibel askotakoa eta, iduriz, gure kritikariek kontutan hartzen ez dutena. Badirudi askotan hizkuntza bat zeharo garbia baina hila nahi dela, Museoko bitrinan jartzeko baizik balio ez duena. Euskaltzaindiaren bidea ez da, ezin izan daiteke, hori.

Guk nahi dugu euskara gaitu, gaurko munduko gauzak adierazteko trebe bihurtu. Horretarako, ordea, beharko du besteekin har-emanean izan eta beharbada gairik asko hartu ere bai. Euskarak orai arte iraun baldin badu, aspaldidanik bide horretatik sartu zelako izan da, eta orai ere, itxuren arabera, neurri batean halatsu egin beharko du. Ez ote zigun Altubek erakutsi garbikeria dela biderik zuzenena euskara hilobira bultzatzeke? Guk nola onart dezakegu geure mintzoa hilobira eramatea?

Garbitasun eta funtzionaltasunaren artean bistan da zein den gure bidea. Horrek, bestalde, ez du kentzen garbitasunari ere bere lekua aitortzea.

Hizkuntza bat, nahi duzun bezain beste garbi izanagatik, behar diren gauzak esateko balio ez baldin badu, tresna alferra da, eta mintzatzaileak, idazleak eta abar zokoratu egingu du. Gure hizkuntza gai bihurtzea: hori da euskaragatik arduratzen garenok dugun egiteko handia eta zaila.

Euskaltzaindiak badaki berak bakarrik ezin egin dezakeela dena. Herri osoaren lana da, baina gidaritza nolobait berari dagokio. Eta guk ez dugu eskatzen besterik gurea den esparru honetan behar den autonomia utz dakigun baizik.

Gainerakoan, eta bukatzeko, gure eginbidea da dauden Erakunde, Diputazio etab. aitortzea, horiei gure zerbitzuak eskeintzea eta horiekin leialki jokatzeta. Eta hala egingo dugulako hitza eman nahi dizugu, jauna, behiala Azkuek Agirre lehendakariarekin egin zuen bezala.